

GURUTZE MUJIKAREN BIOGRAFIA



1959an jaio zen Beasainen, 63 urte ditu.

Gurutze 1991ean etorri zen Aretxabaletara, Azatza elizatera Julenekin ezkondu zenean.

Bi seme-alaba ditu; Garazi eta Beñat.

Pintxo izeneko txakur bat du.

Margotzeaz gain baserrian egiten du lan. Ortua zaintzen du eta esne behiak dituztenez, jaiotzen diren txahalei esnea ematen die.

Txahalak arrak edo emeak izaten dira eta beraiek emeekin gelditzen dira eta izena jartzen diete.

Egunero hartzen du tartetxo bat marrazteko.

Gurutzen artelanak

20 urterekin egin zuen bere lehen oleo lana.

Txalupa bat uretan izan zen bere lehen koadroa.

Ez ditu kontatu baina 200 koadro baino gehiago ditu.

Gehien, olioekin, baina arkatzak, boligrafoak eta akuarelak ere erabiltzen ditu marrazteko.

Urdina, udazken koloreak eta elurra marraztea asko gustatzen zaio.

Batzuetan, hilabete edo beste batzuetan 3 hilabete ere behar izaten du koadro bat bukatzeko.

Erakusketak egiten ditu. Arkupen, Oñatin, Arrasaten, Beasainen, Zumarragan eta Parisen ere egin ditu.

Klaseak jaso ditu Anton Juaristi eta Luis Laskurainekin.

Gurutzen koadro gogokoena bere jaiolekua elurtuta agertzen den bat da.

